

▶▶▶ **Arre, Eusa, Makirriain, Orrio eta Zildozko kontzejuek** ere aukeratu behar zituzten hurrengo lau urteetarako presidentea eta zinegotziak. Sara Moreno Arren, Daniel Idoate Eusan eta Mikel Olleta Zildotzen berriro dira kontzejuko presidente aurreko legealdian izan ziren bezala. Makirriainen Jon Diez de Ure eta Orrion Judith Oteiza hautatu zituzten.

Orikain, Azotz eta Sorarengo kontzejuek jardunean jarraituko dute abenduaren 20an hauteskunde orokorrak izan arte. Kontzejuek kudeatzeko hautagai zerrendarik aurkeztu ezean, Nafarroako Gobernuak horretaz arduratuko den batzorde kudeatzailea izendatuko du.



Errespetua, Zintzotasuna, Objektibotasuna eta Gogoak dira Udalak Ezkabarteko auzo ororen onerako lan egin eta hobetzen ahal dezan ezinbesteko osagai...

BALORAZIO TXOSTENA

Ezkabarteko Udalak, 2015eko urriaren 15ean eginiko osoko bilkuran, Ezkabarteko Balorazio Txostena berrikustea onetsi zuen hasiera batez.

Balorazio txostena Katastrorako Zuzendaritza Nagusiak eginiko dokumentua da, zeinek bere aplikatze esparruaren barnean diren ondasun higiezinaren katastro balioaren zehaztapena egiteko irizpideak, balorazio moduluak eta beharrezkoak diren gainetarako elementuak biltzen baititu. Mota bereko, hiri edo landa motako, higiezin guztiak aplikatzen zaie. Katastro balioa hiri eta landa kontribuzioko kuota nahiz udal gainbalioa kalkulatzeko erabiltzen da.

Balorazio Txostena Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak bere 36.4 artikuluan ezarritakoaren arabera aplikatzen da, balorazio txostenaren proiektua jendaurreko informazio aldiaren egonen da iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita hogeitau egun baliodunetan.

Hauteskunderen emaitzen ondoren, ekainaren 13an, eratzeko bilkuretan legezko egin ziren udal eta kontzejuek. Ezkabarteko Udalean, orain dela zenbait urtetik tradizioa eten eta boto gehien erdietsiriko hautagai zerrendako burua izendatu zuten alkate eta, hortaz, Pedro Lezaun da berriro alkatetzan.

Lau urte aurretik gure ordezkariak, ideia politikoak edo pertsonalak edozein izanik ere, hautets ontzietan -auzoek- aukeratu ta, kontziente izan daitezen guztion ongietan eta interesen alde egin behar dutela.

Bertako ekonomia bultzatzea



Hainbat udal buletinetan hitz egin dugu jada **Ezkabarteko Azoka Txikiaz**, haren interesaz eta, bere kabuz gehiago irauteko eta buruaskiagioko izateko, bertako ekonomia bultzatzeko helburuaz eta hazteko eta ibarrean autoenpleguari mesedegarria izan ahal izateko dituen gogoez.

Hori da buletin honetan ibarreko ekoizle eta dendarien zerrenda sartzeko intere-

saren arrazoiak, gure inguruan aurkitu eta eskura ditzakegun natur produktuak, ekologikoak, eskuz eginak, publizitatu eta eza-gutzera eman eta, hola, etekina guztiok ateratzea xede.

Parte hartu, beren lana egin eta horren emaitza erakutsi nahi duen lagun gehiago aurkitu eta batzea da ekimenaren sustatzaileen nahia.

PRODUKTUEN, EKOIZLEEN ETA PRODUKTUAK LORTZEKO TOKIEN ZERRENDA:

PARTEHARTZAILEA	HERRIA	TOKIA	TELEFONOA	EMAIL
Egurgileak:				
1	losu	Arre	Egurra	619 204 223 arlekyn@hotmail.com
	Mikel	Zildotz	Egurra	608 187 631 mikelolleta@gmail.com
	Jesús Ángel	Sorauren	Egurra	608 231 850 seapoto1@gmail.com
2	Alberto Biniegra	Sorauren	Barazki produktuak	633 402 223 alberto@izaera.net
3	Iratxo y Gaizka	Sorauren	Kremak, Arropa, Eskumuturrerekoak, Artilezkoa, larruzkoa	618 115 928 irisss_lb9@hotmail.com
				662 522 475 gaizkolo@hotmail.com
4	Fernando		Margolaria	669 943 018
5	Laura	Zildotz	Artisau lanak, teilak eta panpinak	676 558 068 la.uri.ka@hotmail.com
6	Stephanie	Makirriain	FIMO	609 001 845 stephanie.j.henke@hotmail.com www.isainarcreaciones.com
7	Iosune	Arre	Mantalezko zorroak	625 673 993 frodocasper@hotmail.com
8	Rubén	Arre	Gomazko erraldoiak	660 637 001 tuningblue@telefonica.net
9	Iker	Arre	Larrua eta egurra. Ezpela	677 442 199 iker_ira@hotmail.com
10	Julio José Fernández	Azotz	Argizaria eta tulipak	689 387 658 julniene@yahoo.es
11	Nerea Jiménez	Arre	Mantalak, bufandak, gomaeva...	676 920 029 familialezaun@gmail.com
12	Alexia, Maider, Andrea, Sandra...	Arre	Xaboiak eta kremak	667 359 852 alexiaz@msn.com
13	Beatriz e Iranzu	Arre eta Sorauren	Eskulanak, bikarren eskukoak, zaharberritze	651 325 827 bferrandez74@yahoo.es
				649 554 204 iranzu.baltasar@gmail.com



Esan behar da Azoka Txikiaren helburuen barnean bertako salmenten bidez bilduriko diruaren parte bat ibarrean baliabide gutxiago duten familiei laguntzera bideratu behar zela eta nahi hori bete egin dela. Joan zen ekainean, Ezkabarteko Elikagai Bankuaren familia Onuradunak ohi baino lote bat gehiago jasotzeak harritu zituen, Azoka Txikian prestatu baitzieten, premiazko zenbait produktu freskorekin, zein gaurkoz Elikagai Bankuak egin ezin baitu. MILESKER...





Ibarreko Festak Orrio 2015

Gure egutegian ezin dira ekain bukaeran Ezkabarte ibarreko festak falta izan. Lkasturte bai haurrentzat bai guraso eta aitona-amonentzat trinko baten ondoren, guztiok merezi dugu atsedena eta guztiok egoten gara udak ematen dizkigun ekitaldi eta gertakariez gozatzeko gogotsu. Horregatik ibarreko festak, aurten ekainaren 27 eta 28an Orrion izanda, bi hilabeteri, non “eguraldi ederrak” eta udaldiak alaitasun handiagoz eta erlaxatuxeago bizi izanarazten baikaituzte, ateratzeko emaniko seinalea dira.

Aurten Orrio herrian izan dira festa egitarauan aurkezturiko jarduera eta gertakari guztiak. Bai txikien txangoa – hamaiketako, jarduerak, puzgarriak... barne- bai arratsaldean auzo eta lagunaren artean folk soinuaren hotsean txistor jate eder batez gozatzea. Festan eta giro onean jarraitzeko hoberena plater artean gozatu eta urdaila asetzea da; horregatik Orrioko Kontzejuak herri afari animatua antolatu zuen Luciano gure giroztaile leialak ezartzen duen erritmoari jarraitu ahal izateko.

Igandean, meza, gure nagusientzako omenaldi hunkigarriarekin. Concha Aldabak ez zuen igandeko omenaldira joaterik izan, baina aurreko egunean poz-pezik eta emozionaturik hartu zituen etxean ibarreko eta Orrioko alkateak eta, tradizioa denez, ibarreko harmarria duen zapia eta lore sorta bat eman zizkioten. Ibar osoan ezaguturiko Bermito Laquidain nekazariak, berriz, bere herriko parrokian, auzoen begiradaren aurrean, herriko gizonik zaharrena izateagatik egin zioten omenaldia entzun eta onartu zuen igandean, oso emozionaturik bera ere. Gure herrietako nagusiek maitasun berezia sorrarazten dute eta horregatik Orrioko Kontzejuak herriko emakume haiek dioten bezala berezi, aktibo eta oso poxpolin bati, Alejandra Oroquietari, aipamen berezia egin nahi zion bestalde. Aurreko urteetan, senidetan bazkariaren ondo-



ren, gure ibarrean nola edo hala eragin positiboa izan duten pertsoneri aipamen berezia egin ohi zaie. Aurten parrokian berean izan zen, Alejandra eta Bermito (horren senarra) bikotearekin batera, eskola, liburu eta azterketa arteko bizitza baten ibilbidearen aitortza, Ezkabarteko “ez horren gazte” horietako batzuegan azarna utzi duen emakume batena, Doña Montsek, Arreko eta Lorenzo Goicoa eskoletako “maistrak”, aipamen berezia izan zuen. Ezkabarteko Abesbatzak bes-

te behin eman zigun atsegin bere kantekin eta, festak jarraitzeko, Oberena Taldea herri dantzetan aritu zen. Eskulan erakusketa eta azoka solidarioa. Ibarreko auzoen arteko senidetzea karpan eginiko bazkariaren bitartez eta, beti bezala, bi festa eta poz egunen urrezko amaiera, bazkalondoa eta dantzaldia...

Festetan parte hartu duten auzo guztiei eta Orrioko Kontzejuari eta horko auzoei bereziki eginiko lanagatik eta inplikazio eta interesagatik, milesker.

Zuhaitzaren Eguna

Ezkabarten lehenbiziko urtez eta esperientzia pilotu gisa, zuhaitzaren eguna egin zen Atarrabiako Udalarekin batera. Martxoaren 14rako aurreikusita, atzeratu behar izan zen eguraldi txarragatik hil bereko 21ean egiteko.

Arreko Kontzejuko herri lurretan, ur pasealekutik hurbileko mazelan batean, **Ezkabarteko eta Atarrabiako familiek 100 bat landare:**

lizarrak, intxaurrendoa eta quercus humilis, landatu zituzten. Egun hori egitearen helburuak landarearen existentzia eta garrantzia eta eremu zuhaitzuak babesteari buruzko kontzientziario eta eginberrara gogoratu eta ezagutaraztea dira. Zuhaitzek, beste onura anitzez gain, karbono dioxidoa, berotegi efektua sortzen duena, biomasa bihurtzen dute, uholde arriskuak minimizatzen dituzte, higadura eragozten dute, e.a.



Eguraldia dagokionez egun onargarri bat lagun, parte-hartzaileek goiz osoan zehar lagundu eta lan egin zuten buru-belarri. Keinu hori zuhaitzen aldeko manifestua da, guztion artean naturarekiko maitasuna eta errespetua hedatzeko.

Festa egun horren amaiera gisa, heldu, gazte eta txikiak txistor jate on batez gozatu zuten Arreko Igueldea futbol zelaiaren inguruetan.





5. Edukiontzia Arren

Mankomunitateak bosgarren edukiontzia, gai organikoak biltzekoa, instalatuko du ARREN. Edukiontzi marroiak jarriko dira honelako hondakinak botatzeko: *fruta eta barazki hondarrak, fruitu lehorren hondarrak, ogi zatiak, oskol eta maskorrak, kafearen eta infusioen hondar eta iragaziak, hostoak, loreak, landare berde edo lehorrak, baratzeko hondarrak, belarra, hostoak eta inausketan eginiko zatiak, prestaturiko janariak, haragi edo arrain hondarrak, zerrauts naturala eta sukaldeko paper zikina.*

Azaroaren 21 larunbatean, sentikortzeko eta kontzientziatzeko jarduerak egingen dira bai haurrentzat bai helduentzat.

- ▶ **21ean, larunbatean**, 11.00etan San Roman plazan haur eta helduentzako tailerrak, puzgarriak eta jolasak izanen dira 14.00ak arte. Arratsaldean, 16.30ean, ipuin-kontalari bat Arreko Kontzejuan. Jarduera guztiak gure kontsumo errutinen, horien ondorioen eta jardun arduratsuen gainekoak izanen dira. **Murriztu, Berrera-bili, Birziklatu eta Berreskuratu.**
- Lagundu eta bosgarren edukiontzia erabili nahi duten lagunek (parte-hartzea boluntarioa da) IM-MCPk Arren lehen aipaturiko egunetan instalatuko dituen informazio guneetan eman beharko dute izena alde zurretik. Mankomunitatearen web orrialdearen (www.mcp.es) edo **948 423 242** tel. zenbakiaren bidez ere eman daiteke izena.



Recogida selectiva Materia Orgánica Gai organikoak Gaikako bilketa

Bosgarren edukiontzia, marroia, instalatuz jarraitzen dugu **gai organikoen gaikako bilketa** ezartzen. Edukiontzi horrek, etxeko konpostatze-ontziarekin batera, era boluntarioan hondakinak egoki kudeatu eta betebeharrak diren jasangarritasuna eta ingurumenarekiko errespetua betetzea ahalbidetzen du.



Oraindik ez duzu izena eman?

Garaiz zaude, aukeratu erosoan suertatzen zaizun era:

- 📄 Mankomunitatearen web orrialdean: www.mcp.es
- ☎ Herritarrei arreta emateko 948 42 32 42 tel. zenbakian
- 📱 Whatsapp bat 628 44 88 44 tel. zenbakira igorritz
- 🏠 Informazio guneetan

Izena emandako etxe bakoitzeko doako kita



Izena ematen duzunean, etxean bisitatuko zaitugu zu zuzenean informatzeko eta edukiontzia irekitzen duen giltza eta gai organikoak erosotasunez bereizi ahal ditzazun kubo praktikoa emateko

*Separa mejor, dale vida a la orgánica
Hobeki berezi, biziberritu organikoak*



📞 948 42 32 42
www.mcp.es



A ÍSLA tu casa y AHORRA

Aislamiento térmico y acústico

MADE IN NAVARRA

Aislanat, único aislante de celulosa **fabricado en Navarra.**

Aisla tu casa con celulosa, **en un día, sin obra**, a un **bajo coste** y con un producto totalmente **ecológico.**

50% ahorro
En un día
Sin obra



948 33 00 15 -627 41 22 69
www.aislantesaislanat.es



Estamos en el Polígono Industrial de Oricain/Orikain

Musika eta euskara ikasleentzako diru-laguntzak

* Aurtengo urriaren 1ean eginiko ohiko bilkuran, musika eskoletako ikasleentzako diru-laguntzak emateko oinarriak onestea erabaki zen.

Berritasun gisa, aurten euskara ikasketan interesaturiko ikasleei ikastaroak diruz laguntzea ere erabaki zen. Azken kasu horretan, horretarako aurrekontuetako kontu-saila onesten bada betiere; bestela, ezin izanen da diruz laguntzeko asmoa gauzatu.

Kontuan izan beharreko punturik garrantzitsuenak nabarmendu behar ditugu:

- Eskabideak emateko epea 2015eko abenduaren 15ean bukatuko da.
- 2015/16 ikasturte hau lagunduko da diruz.
- Eskatzailea deialdia baino urtebete lehenagotik gutxienez egon beharko da Ezkabarten erroldaturik.
- Aurreko ikasmila gaingiturik izan behar du, ikasle berria izan ezean, musika eskoletako diru-laguntzarako, eta bertaratze edo eta aprobetxamendu ziurtagiria, euskara ikasketarako diru-laguntzen kasuan.

Eta dokumentu hauek aurkeztu:

- Diru-laguntza eskatzeko instantzia beharrezko datu guztiak emanda.
- Eskolak emanda, matrikulaturik egon eta klasera normaltasunez joatearen ziurtagiria. Musika eskoletako diru-laguntzetarako, aurreko ikasmilako notak.
- 2014ko errentaren aitortpena, eskaera gehiegi badago.

Bi diru-laguntzen oinarriak nahiz eskabidea www.ezcabarte.es web orrialdean daude esekirik.

Enplegu bila...

Ezkabarteko Udalak ibarrean langabezi egoeran diren lagun guztiei (30 urtetik beherakoei bereziki) Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eskatzaile gisa izena emateko esan nahi die behin eta berriro.

Langabe txartela lortu eta behar bezala zibilatzeak lan oportunitateak izaten lagun dezake, informazioa eta orientazioa jaso eta prestakuntza programei onura ateratzeaz gain.

Nafarroako Gobernuak 50 urtetik gorakoan, 30 urtetik beherakoan, emakumeen eta desgaituen kontratazioa diruz lagundu ohi du iraupen zehatzeko kontratueterako, 6 eta 9 hilabete bitarteko kontratueterako.

30 urtetik beherakoan kontratazioen kasuan funtsezkoa da:

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuan eskatzaile gisa izena emanda egotea.
2. Gazte Bermearen Sistemako fitxategian ere izena emanda egotea.

Gazte Bermearen onuraduna izateko, ezarritako baldintzak bete behar dira eta, izena ematera, Gazte Bermearen Sistemako fitxategira jo behar da.

Gazte Bermearen Sistemako Erregistrora jo eta izena emateko erarik erraz eta lasterrena NAN elektronikorekin, ziurtagiri elektronikoren onartu baten edo legez finkatzen diren beste bide batzuen bidez egitea da, baldintzak betetzen badira betiere.

NAN elektronikoren edo Ziurtagiri Digitalik izan ezean, izena emateko eskaera langile espezializatuen laguntzaz egin daiteke merkataritza ganberen bulegoen bitartez, NANA aurkezte soilaz.

NAFARROAKO MERKATARITZA GANBERA
Chinchilla Jeneralaren Kalea, 4
31002 iruñea | Tel. 948 077 070

Gazte Bermearen helburua da 30 urtetik beherako gazte guztiek enplegu eskaintza ona, hezkuntza jarraitua, apendiz prestakuntza edo praktikaldiko prestakuntza lau hilabete epean, hezkuntza formal edo langabezia bukatu ondoren, jasotzea.

Ez utzi biharko, gaur egin...

+ info: <http://www.empleo.gob.es/es/garantiajuvenil/darsealta.html>

ELURTE KASURAKO PROTOKOLOA

Ohikoa den bezala, urtero, negualdia eta lehen izotzaldiak iristen direnean, Udalak gatza banatzen die kontzejuei auzoek ataka edo behar kasuetan eskura izan dezaten. Zerbitzu Anitzek botatzen dute gatza tokirik jendetsuenetan, bus geltokietan, Osasun Etxearen inguruan, e.a., esaterako.

Elurte kasuetan, pala batek garbitzen ditu ibarreko herrietako karrika nagusiak. Kontziente izan behar da eta kontuan eduki elurra kentzeko makinak kale guztietatik pasatzerik ez duela bere tamainagatik eta kale anitzetan, neurri batean ibilgailuen aparkalekuak direla eta, egon ohi den toki txikiagatik. Zenbait aldetan lurteko kutxatilik zoruaren mailatik gora daudela ere hartu behar da kontuan, palak zenbait kalte eragin baitezake.

Ondare immaterialaren aurkezpena

Azaroaren 27an 19:30ean Ezkabarteko Ondare Immaterialari buruzko proiektioaz gozatzen ahalko da Arreko Kontzejuko aretoan.

Labrit Patrimonio enpresak egin du lan hori eta gure herrietako nagusien laguntzak ahalbidetu du. Ezkabarten jaio eta bizi izan diren eta iraganeko momentuak eta sentimenduak, ohiturak, landako lan ordu luzeak, festak... bizirik mantentzen dituzten jendee-nak. 30 bat minututan agerrarazteko hainbat testigantzen bitartez biltzen saiatu den benetako herentzia.

Lan horren helburua belaunaldi berriei gure nagusien bizipenak eta oroitzapenak transmititu eta eskura jartzea da. Aurkezpen egunean proiektatuko den bideoak ez du asmo pare bat baizik: ekitaldira joaten diren pertsoneri egin den lanaren, elkarrizketen mintzagaien (ez guztien), lagin bat erakustea eta elkarrizketaturikoei eta haien belaunaldi osoari oro har omenaldi txiki bat egiteko aitzakiatzat balio izatea hain zuzen. Ordu erdia, gozoz eta kolorez betea, eta pozez, batzuetan tristuraz, eta oroimenez batik bat denbora on eta txar haiengatik, itzuliko ez baitira...



Esker on berezia lagun hauei:


Elisa Larrea Viscarret
Angel Lecumberri Garijo
Sagrario Murillo Huarte
Fernando Huarte Zabalza
Carmen Cadena Ibañez
Francisco Arrarás Hurtado, *milesker zure testigantza gu utzi aurretik emateagatik.*
Victor Idoate Munarriz
Lucio Goyeneche Villabona
Martín Gascue Aldaz
Angel Esquiroz Latienda
Avelina Orradre Paternain
M^a Carmen Itoiz Orradre
M^a Pilar Itoiz Orradre
Bermuto Laquidain Villanueva
Alejandra Oroquieta Macaya
Miguel Arangoa Lizarraga
Dolores Orradre Murillo
Gerardo Urriza Larrea eta
Pedro Diez de Ulzurrun Biurrun



TRINITATEKO PASEALEKUA

Auzoen -Arrekoen bereziki- lasaitasun eta erosotasunerako, maitatzean bukatu ziren Arreko Trinitateko Baselizaren eta N-121 errepidearen arteko pasealekua, herrigunerantz doana, egokitzeko obrak. Zatiak ordura arte -errepide asfaltatuak hutsune handiak zituen eta ez zuen espaloirik- zaildu egiten zuen Arre eta Atarrabia arteko bidea egunero oinez edo bizikletaz egiten duten lagun anitzen joan-etorria.

Errepidearen bi aldeak garbitu dira eta eskuinaldeko bazterrean espaloi zabala eta bizikleta erreki bat prestatu dira zatia oinezkoei errazteko. Obraren ondorioz eta bidea libre eta oztoporik gabe mantentzearen, debekaturik dago ibilgailuak aparkatzea, une puntualetan eta gurtza orduetan izan ezik.



KOMUNAK IBAI PARKEAN

Iruñerriko Mankomunitateak, mankomunaturik gauden udalok egiten ditugun diru ekarpenei esker neurri batean, gauzatzen dituen hobekuntzen eta zerbitzuen artean, hainbat jarduketa egiten da. Uztailean bukatutzat jo ziren Ibai Parkean, **Orikaingo Hondartzan zehazki**, gauzaturiko obrak, **komun publikoak dituen etxola instalatzekoak**.

Obrak 27.492 euroko inbertsioa eginarazi du eta eguraldi ederrez bereziki parajeaz eta inguruez gozatzen duten oinezkoek, kirolariak eta familiek agerturiko eskaera eta beharrari erantzuten dizkio.



Komunen eraikina forma karratukoa da eta aurrealdea harrizkoa eta zur koloreko habeak ditu, paisaiarekin bat datorren landa diseinua agerian.

Komunetarako sarrera libre eta doakoa da.

GOGORATU

EZ GARA NEKATUKO ERRESPETUAK ETA JENDETASUNAK GUZTION ARTEKO ELKARBIZITZAREN ETA ELKARBIZITZARAKO DUTEN GARRANTZIA, AUZO GUZTIEI, GOGORARAZTEAZ .



Ez ahantzi:

- ▶ Zure txakurraren datuak udaletxean ematea arriskugarria izan daitekeen arraza batekotzat jotzen bada.
- ▶ Txakurrek muturrekoa eraman beharko dute arraza arriskugarriak izanez gero eta kasu orotan loturik joan (ibai pasealekuan ere bai).
- ▶ Badira txakurrak libre ibiltzeko eremuak, "pipican" deiturikoak.
- ▶ Zure maskotaren gorotzak bide publikotik, lorategietatik... biltzea. Etxean gauza bera eginen zenuke?
- ▶ Ibai pasealekua paseatzeko da, ez egin bizikleta lasterketarik, errespetatu oinezkoak lehentasuna haiek baitute.
- ▶ Erretzen baduzu, gogoratu karrika ez dela hautsontzia eta zigarrokinak uzteko tokiak dituzula.

EKARRI ZEURE HARRI KOXKORRA ZURE HERRIA GARBI MANTENTZEKO...



Jaiotzak

Beti izaten da poz ikaragarria umetxo bat jaiotzea; horregatik, hartu gure Zorionak eta ongietorria:

- Alvaro Martin Diez De Ulzurrun (Zildotz)
- Africa Hechavarria Huarte (Arre)
- Daniel Hernandez Marco (Sorauren)
- Patricia Navarlaz Segura (Arre)
- Enaitz Arandigoyen Vicente (Makirriain)
- Patxi Sanchez Calleja (Arre)
- Daniel Vidal Periañez (Arre)
- Aimar Perez Perez (Arre)
- Matilde Osta Lara (Arre)

Heriotzak

Gure oroimenean daude:

- Jesus Labiano Larrea (Sorauren)
- Juana Mariñelarena Mendilazo (Makirriain)
- Francisco Arraras Hurtado (Azotz)
- Jose Goñi Telletxea (Garrues)
- Itziar Asiain Martinez (Arre)
- Sebastiana Goyeneche Villabona (Garrues)
- Lucina Azpilicueta Goñi (Zildotz)
- Gregoria Aguinaga Sarasibar (Aderiz)
- Alicia Garcia Olza (Sorauren)
- Petra Equiza Ripa (Sorauren)



TELEFONO INTERESGARRIAK:

Ezkabarteko Udala (Orikain)	948 330 341
Kexak eta iradokizunak	012
Genero indarkeriaren aurka	016

Bidez Osasun Etxeak (Arre)	948 332 335
Ezkabarte kiroldegia (Azotz)	948 330 758
Publizitatea Aldizkarian	948 248 324